

...eta kittO!

707 zkia. 2010-I-29

ASTEKARIA

TOKIKOM



Otsailaren
10etik

Martxoaren
26ra

33. Antzerki Jardunaldiak

EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean




Hobera egin du baliabideetan, berrikuntzan eta kalitatean

Euskal Eskola Publikoa

Urtez urte hazten dira. Baita euren eskola ere.

Aurrematrikulak: Otsailaren 1etik 11ra


HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN



ITZIO D.B.H.

943 70 22 89

**2010
2011**
IKASTURTEA



MOGEL ISASI D.B.H.

943 20 30 94


*Etorkizunerako prestakuntza
Eleaniztasuna*

*Ezagutza teknologikoak
Balore integratzaileak*



AMANA

943 20 72 50



URKIZU

943 12 17 78



ARRATEKO ANDRA MARIA

943 20 72 35



J.A. MOGEL IKASTOLA

943 20 84 87



SAN ANDRES

943 20 79 95



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



baikara
Gizuzkoak Ikasleek
Gurasuen Föderazioa



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi,

S. Hernandez eta E. Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

"Rosas Rojas"

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

FRANKEZA.- Zintzotasuna. "Frankeza haundixakin erantzun detsa".

FRANKO.- Asko, ugari, mordoa. Eskuzabala, zintzoa. "Franko ibilli da dirua gaurko iri proban". "Suhia ei dau gizon frankua".

FRANTXULET.- Txirula edo flauta mota bat. "Frantxuletakin jotzen zittuan soinu edergarriak".

ESKUTITZAK

AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK

Azken egunotan komunikabideen bitartez 2010-eko Udal Aurrekontuen inguruko berriak jasotzen dihardugu. 2009ko azaroan egin genuen agerraldian aurreratu genuen, egungo egoera ikusirik, gastuen antzera inbertsioak ere zorrotz begiratu beharko liratekeela.

Baina Aurrekontu horien zirriborroak ez diote guk adierazitako nahiari erantzuten, nahiz eta onartzen dugun hiritarren gehiengoaren nahia dela. Adibidez: guztion gustukoak ez diren azpiegitura handietan inbertsioak egitea, kolektibo bat asebetetzea, trafikoa eta aparkalekuen hobekuntzarako diru-hornidurarik eza... Faltan botatzen ditugu gune berdeetarako inbertsioak (zementu gutxiago), gizarte politiketan inbertsio gehiago, motz geratzen zaizkigu tokiko langabetuen behin behineko lanerako 663.000 euroak (Urtarrileko 1.784 langabetuetatik 40 pertsona estaltzeko); inbertsioak hiritar gehien mesederako izan behar du, baina lehen esan dugun moduan, bizi

dugun krisi-egoera eta horrek dakarren ondorioak ahaztu barik.

Gaur egungo udal-agintariak hiritarren interesetatik urruti daude. Hiritarrek instituzioengana eta instituzioak hiritarrengana gerturatzea nahi baldin badute, hiritarrei ahotsa eman beharko liekete, foroetan nahi dutena adieraz dezaten. Ez dugu hautesle soilak izan nahi, 4 urtetik behin bozka ematera doazenak, irabazlearen proiektuak irentsiz. Aberasgarriagoa da proiektu horien bideragarritasunean denok parte hartzea eta/edo proiektu horiek aberasten laguntzea, hiritar gehienak asetzen ez dituela jakinik aurrera ateratzea baino. Ekintza horiekin instituzioak berrindartu egingo lirateke.

Hausnarketa horiekin aurrekontu parte-hartzaileen egokitasuna adierazi nahi dugu, hiritarren bizi-kalitatea hobetuko duten aurrekontuak, proiektu handiekin hasi aurretik, estatusun egoerei aurre eginez.

MAIXA (EIBARKO HERRITARREN PARTE-HARTZE MAHAIA)

asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Abereen metabolismoa eta elikadura aztertu beharra dago, metanoa eta beste gasak gutxitzeko, aldaketa klimatikoan eragina baitute. Behiek 40 segunduro botatzen dituzte gasak eta, tartean, metanoa; egunean 230 litro metano ere bota ditzakete. Eta, atmosfera berotzen duten gasak dagokienez, metanoak karbono dioxidoak (CO₂) baino eragin handiagoa dauka"

(Wolfgang Buescher, Bonnoko Unibertsitateko irakaslea)

"Doktrina katolikoa sakon aztertzen bada, abortua justifikatzen duen argumentazio zabala dago. Ez du esaten 'emakume, aborta ezazu', baina bai 'emakume, izan arduratsu eta pentsatu ea amatasun hori zure gain har dezakezun'. Bera da hori jakin dezakeen bakarra eta Jainkoa errukitsua da eta ulertzen du emakumeek euren kontzientziari jarraitu beharra"

(Elfriede Harth, Catholics For Choice-ko Europako ordezkaria)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)




Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

Gaztetxea uztaizten ahalegindu dira

EGUAZTEN GOIZEAN UDAL-TZAINAK TALLARRA GAZTETXERA JOAN ETA BERTAN ZEGOEN JENDEA ERAIKINETIK ATERATZEN AHALEGINDU ZIRELA eman zuten aditzera bertako gazteek, egunean bertan Urkizun egindako asanbladan. Udalak eraikina hustu nahi zuela lehendik ere bazekitela adierazi zuten gaztetxeko arduradunek, baina ez daude ados horretarako eman diren pausoei: *"Udalak uda partean eman zigun aditzera gaztetxeko eraikina botatzeko asmoa zuela, han inguruan bide berria egiteko beharrek hala eskatzen zutelako. Aipatutako beharrak irailan hastea zegoen aurreikusita, baina*

gaur arte inork ez digu gaiaren inguruko ganorazko azalpenik eman". Gauzak horrela, eguazten goizean *"bederatzi udaltzain eraikina hustutzeko asmoz"* agertu zirela azaldu zuten, *"baina eraikina uztaizteko agindu barik zetozenez, ezin izan gintuzten bota"*. Asua Errekako eraikinean une honetan jendeak bizitzen diharduela azaldu zuten gazteek, eta datozen egunotan ere gaztetxe barruan jendea txandakatzen joango dela agertu zuten.

Tallarra gaztetxea Asua Errekan zabaldu zutela 8 urte beteko dira martxoan. Eraikina udalarena da eta, gazteek azaldukoaren arabera, *"edozein okupazio egiten denean*



ematen diren pausoei jarraituta, eraikina okupatu eta jabeari, kasu honetan udalari horren berri ematera joan ginen. Orduan udalak elkarte kultural modura jarduteko proposamena egin zigun, baina uko egin genion, gure asmoa ez zelako hori".

Gaur arratsalderako manifestazioa deitu dute, "Tallarra gaztetxiaren defentsan" leloari jarraituz. Presoen aldeko ekitaldiak amaitzean, 19.30etan Untzagatik abiatuko da. Au-

rretik, 18.00etan Urkizun asanblada informatiboa egiteko asmoa dute. Bestalde, egunotarako antolatutako ekitaldiei *"ahal den neurrian eusteko"* asmoa azaldu zuten gazteek. Bihar gauerako kontzertua egitea dago aurreikusita, 22.30etatik aurrera. Talde bik jardungo dute: Soraluzeko Klavo Oxidado taldekoek bigarren diskoa aurkeztuzko dute eta, eurekin batera, Donostialdeko Plan B taldekoek joko dute.

Doaneko Wi-Firako esperientzia pilotoa

UDALAK HERRI OSOAN INTERNETERAKO DOANEKO SARBIDEA ESKAINTZEKO ASMOAREKIN aurrera dirau eta, horretarako, aurtengo aurrekontuetako zirriborroan horri ekiteko 130.000 euroko partida aurreikusi du. Zerbitzua herri osora zabaldu aurretik, Untzagan, Txaltxa Zelaian eta Urkizun esperientzia pilotoa egingo dute. Lortutako emaitzaren arabera, esperientzia herriko beste kale eta auzoetara zabaltzeko aukerak aztertuko dituztela aurreratu dute. Udalak interneterako sarbide inalanbrikoa ezartzeko dauden aukerak jasotzen dituen txosten teknikoa badauka, baina Wi-Fia zabaltzeko oztopoak ez omen datoz teknologiaren alde, *"alde juridikotik eta legearen estalduratik baino"*. Alkatearen berbetan, *"proiektuaren atalik garrantzitsuena interneterako sarbide inalanbriko horren kudeaketa-ereduaren azterketan datza"*.

Izan ere, proiektuak aurrera egitekotan, herritar guztiak internetera lotzeko aukera izango dute, etxean, lanean edo beste edozein tokitan horretarako konexiorik izan barik. Herriko hainbat puntutan ipiniko lituzketen nodo eta antenek ahalbidetuko lukete konexioa, beste barik, gaur egun Portalean gertatzen den bezala.



Txikitto! hilabetekaria interneten bakarrik

EGUAZTENAZ GEROZTIK TXIKITTO!-K ARO BERRIARI EKIN DIO: PAPERARI AGUR ESAN ETA AUERRERANTZEAN ONLINE, interneten baino ez da argitaratuko. Beraz, aurrerantzean sarera jo beharko da bertan azaltzen diren denborapasa, txiste, ipuin, elkarrizketa eta berriak irakurri ahal izateko. Hala ere, edonork jaitsi dezake aldizkariaren PDFa bere ordenagailura eta nahi izanez gero, paperean inprimatu. Eta hori nola egin? Ba oso modu errezean. Hilean behin www.etakitto.com webgunearen azalean egongo da **Txikitto** (bestela ere, webgunean **Txikitto** izeneko atal bat dago eta hor ere egongo da eskuragai, aurreko aleekin batera). Horrez gain, www.eibar.net Udalaren webgunean eta <http://eibarko-euskara.com> helbidean zintzilikatuko da.



Ale berriaren azala.


Maximo Argoitia Arrieta

(JUAN ANDRES GURE LANKIDEAREN AITA)

Urtarrilaren 26an hil zen, 91 urterekin

Gure atsekabea eta elkartasuna adierazi nahi diegu haren senide eta lagunei.

...eta kitto! Euskara Elkarte



Trenbide gaineko pasealekua hiru urtetan

IÑAKI ARRIOLA ETXEBIZITZA, HERRI-LAN ETA GARRAIO SAILBURUAK, ETA MIGUEL DE LOS TOYOS EIBARKO ALKATEAK Eibarko trenbideak herrian duen integrazioa hobetzeko akordioa sinatu zuten joan den egunean. Akordioan zehazten denez, egingo diren lanek 25 milioi euroko inbertsioa eskatuko dute eta, horien artean, trenbidearen bikoiztura (Txarakua eta Azi-



tain, eta San Lorentzo eta Unibertsitatearen artean) eta hiru bide-tarteren estaldura (Azitain-Estaziño, Untzagako geltoki berria eta Amaña-Legarre) aurreikusten dira, azken proiektu honetarako 12 milioi euroko aurrekontua erabiliz (Eusko Jaurlaritza eta Eibarko Udalaren artean erdibana).

Trenbidearen estaldura lanak Ardantzako geltoki berria eraikitzen amaitzean hasiko dira zati horretan (2011rako espero da estaldura amaitzea). Amañatik Legarrera joango den estalduraren erredakzio proiektua lizitatze fasean dago, eta sei hilabetetan adjudikatu eta lanak hastea espero da. Estaziñotik Azitainera joango den estaldura, bestetik, berehala irtengo da enkatera. Txarakua eta Azitain, eta San Lorentzo eta Unibertsitatearen artean egingo diren bikoizturekin, bestetik, Ermua eta Mendaro arteko tren maiztasuna handitu, eta Elgoibarrera joateko tranbia zerbitzua ahalbidetzea lortu nahi da.

Ione Telleriak bete du Alberdik lagatako kargua

ABENDUAN AITOR ALBERDIK EAJ-KO ZINEGOTZI KARGUARI UKO EGITEAN aurreratu-takoari jarraituz, azken hauteskundeetarako zerrendan hurrengo postuan joan zen Ione Telleriak beteko du aurrerantzean zinegotzi kargua. Zinegotzi berriaren lehenengo agerraldia asteleheneko udalbatzan egindakoa izan zen. Alberdik Ego Gain kalean zabaldu berri den Batzokiko jatetxearen ardura hartu du bere gain eta, horrek udaletxean beharrez jarraitzeko tarterik eman-go ez ziola ikusita, zinegotzi karguari uko egin



Telleria (2.a ezkerretik) alderdiko kideekin batera. / MAIALEN BELAUSTEGI

zion, udal hauteskundeetan zerrendako seigarren postuan joan zen Telleriaren mesedetan.

a u t u a n

NESKA BATI ERASOA

Udaleko Berdintasun Zerbitzuak eta Emakumearen Mahaiaik gogor gaitzetsi dute astelehenean, hilaren 25ean Eibarren emakume batek jasandako indarkeria sexuala. Aldi berean, lerro hauen bitartez eskerrak agertu nahi dizkiote neskari laguntzera joan ziren bizilagunei, "lehenik 112ra Ertzantzari deitzeagatik" eta, ondoren, zuzenean neskari laguntzera joan zirelako. Erasoa domeka goizean gertatu zen, Amaña inguruko tren geltokian eta astelehenean 29 urteko mutila atxilotu zuten ertzainek, ustezko erasotzailea bera zela egotzita.

T. ETXEBARRIA SARIAK


Atzo amaitu zen aurtengo Toribio Etxebarria Sarietan parte hartzeko lanak aurkezteko epea eta datozen egunotan emango dituzte ezagutzera lehiaketako finalisten izenak eta euren proiektuak. Sariak orain 20 urte sortu zirenetik, 444 proiektu aurkeztu dira eta horietako 48 saritu dituzte.

EB-Aralarrek aurrekontuen osoko-zuzenketa aurkeztu du

EZKER BATUAK (EB) ETA ARALARREK OSATZEN DUTEN KOALIZIOAK AURREKONTU ZIRRIBORROAREN OSOKO-ZUZENKETA aurkeztu zuen joan den egunean. Koalizioak argudiatzen du ez daudela ados zirriborroarekin, "gizartegai, euskerari, elkarte kulturalari... partidak murriztu zaizkie, eta kontuan izan behar da iaz ere jaitzi zizkietela".

Zirriborroan agertzen diren hainbat partida ere kritikatu zituzten. "Badaude hiru partida agertu behar ez zirenak. Urkizuko torreretako ur konponketak ez lirateke egin behar lanak ondo egin izan balira eta horrek diru-publikoaren gestio txarra erakusten du. Bestetik, merkatu plazaren birmoldaketa ez litzateke egin behar Plan Orokorra jarraituz gero Errebaleko aferean.

Hirugarrena Txonta auzoa hobetzeko partida da, egoera txar honetara heldu da horrela nahi izan delako". Osoko-zuzenketaz gain, beste 13 zuzenketa partzial aurkeztu ditu koalizioak. Horien artean, Arrateko kolonietan herri-interpretazio zentroa sortzea, Urkizu eta Txaltxa Zelaian parke estaliak egitea, jantoki soziala sortzea eta Matsarian autobus geltokia sortzea daude.



MAITANE CASTILLO OTAOLAren 3. urteurrena

Bizitza aurrera doa... baina zeure begi urdinen distira eta irrifarre gozoa GURE BIHOTZETAN DAUDE BETIKO.

Haren aldeko MEZA ospatuko da urtarrilaren 31n (domeka), eguerdiko 12.00etan, SAN ANDRES parrokan.

EB-Aralar Errebalen kasuan neurri legalak hartzeko prest

asteko
400.000
datua

euro aurreikusi dituzte udal aurrekontuetako zirriborroan Untzaga jubilatutako etxea handitzeko beharretarako. Untzagak 1.350 bazkide dauka eta aspalditik diote egoitza txiki geratu zaiela: sukaldari 10 metro karratu gehituko dizkiote, tabernari 60 eta 50 metroko gela berria sortuko dute.

EIBARKO UDALAK ERREBALEKO LURRAK BERRESKURATZEKO EIBAR BOULEVARDI 1.320.234,40 EURO ORDAINTZEA "hutsegite hutsa" dela adierazi zuen Ezker Batua-Aralarrek joan den astean. Euren berbetan, "argi dago Udala izan behar zela kalte ordainak jaso behar zituena, lurra erosi zituen enpresak egindako irregulartasunengatik". Koalizioak aipatzen du erabaki honek herri-ogasunari, zein herriko merkataritza sektorearen garapenari kalteak ekarri dion gestio txarra estali nahi duela. Zentzu honetan, koalizioak ez du baztertzen "interes publikoaren defentsa babesteko" neurri legalak hartzea.

EB-Aralarrek dio Sanz&Saiz abokatuei agindutako informean Errebaleko proiektua au-



Udalak jaso beharko lituzke kalte ordainak, EB-Aralarren ustez. / EKHI BELAR

rrera ez ateratzearen arrazoiak ez direla zilegiak: krisi ekonomikoa, EB-Aralarrek Lur-Sailkatze Proiektuaren aurka aurkeztutako auzi-errekurtsoa eta arkitektuen kontratu ebazpena. "Urte bi igaro dira kontratua sinatu zenetik Lur-Sailkatze Proiektua onartu zen arte, beraz, ez dago denbora erlaziorik kasu bi hauen eta proiektua ez gauzatzearen artean".

Errebaleko proiektua ez zuela Plan Orokorra betetzen hasieratik mantendu dutela aipatu zuten Eli Gomez eta Mari Asun Gartzia. "Gainera, Lur-Sailkatze Proiektuaren aurkako errekurtsoko puntu batek horren gainean eta gaineraikigarritasunaren gainean dihardu, kontratua ebazteko alegazio bezala erabili dituzten puntuak orain. Lotsagarria!".

Oin dala hamar urte

2000-I-28 / 301. ZKIA.



- Urte hartan 1.721 kasu atendiitu zituzten DYAKuak, aurreko urtian baiño 500 gehixago. Prebenziño zerbitzuak, ostera, jaitsi egin ziran: 229tik 182ra. Bolondresen kopurua 33 lagunera igotzia lortu eben.
- Gipuzkuako transmissiñorako lege barrixarekin basarrixa lagun bakarrari lagatzeko aukeria emon eban. Aspalditik zetorren kontua zan aldaketa hori, Euskal Herriko basarrixeetan maiorazgua zala eta ez zala.
- Arrate Azkona Klub Deportiboko atletiak kadete maillako Euskadiko errekor barrixa lortu eban Anoetan, 1'75 metroko jauzixarekin. Marka horrekin zillarezko domiña eskurau eban eta estatu maillako 3.a ezari.
- Argia Sarixen XI. ediziñuan Eibartarrak zerrendako herriko internautendako izan zan Sareko sarixa. Zerrendak euskaraz jarduteko eztabaidagunia ipiñi eban martxan, Aurki izeneko billatzaillia be sortuz.

Oin dala 365 egun

2009-I-30 / 665. ZKIA.

- Beste hamar eibartarren bizipenak gehitu zetsen Eibartarren Ahotan proiektuari: testigantza barrixak emon ebenen artian, Antxon Yraolagoitia alkatieta eta Garbiñe Gisasola zinegotzixa izandakuak.
- Millioi eta erdi euroko kostua aurkeztu eban Armerixa Eskolak bere eraikiña irisgarritasun arauetara egokitzeke egin biharreko lanetarako. Obron artian igogaillu barri bi eta arlanpana egittia egozen.
- Nortasun Agiri Nazionala barrizetako bulegua zabaldu eben udaletxiaren beheko pisuan. Txandak emoten hasi eta lehelengo egunian 350etik gora dei jaso eben, zerbitzu hori gabe egun batzuk egon ondoren.
- Alex Aranzabalek Jaime Barriusoren lekukua hartu eban Eibar Football Elkarteko presidente postuan. Ordura arte presidente-ordekua zanak jende gaztiarekin osatu eban zuzendaritza barrixa.






Hilabete hasieran ekin zitoten ABCko langileek grebari. / MAIALEN BELAUSTEGI

ABC enpresako en manifestazio jendetsua

ZAPATUAN HERRITAR UGARI ELKARTU ZEN ABC (ARIZAGA BASTARRICA Y CÍA) ENPRESAKO BEHARGINEK DEITUTAKO MANIFESTAZIOAN: enpresak 7 behargin kaleratu zituen hilaren 11n, lau egun aurretik beharginek euren "lanpostuen defentsan" greba mugagabeari ekin ondoren. Hori ikusita, beharginen batzordeak kaleratutako beharginak berriz

enpresan onartu arte greba mugagabeari jarraitzeko asmoa berretsi zuen, lehenengo baldintza horri beste batzuk gehituta: beharginen lanpostuei eustea, erregulazio espedientea bertan behera lagatzea eta aurrejubilazioak egitea. Lantegiko ia behargin guztiek bat egin dute grebarekin eta eskatutakoa lortu bitartean aurrera jarraitzeko prest azaldu dira.



Presoen eskubideen aldeko ekimenak

EUSKAL PRESO POLITIKOEN KOLEKTIBOAK ZABALDUTAKO KOMUNIKATUAN "euren eskubideen aldeko urte osorako borrokaldia" aipatzen dute eta astelehenean bertan gose greba hasi zuten kartzelan daudenetako askok, euren eskubideak aldarrikatzeko asmoarekin. Horren harira elkarretaratzeak egingo dira Eibarran, gaur, bihar eta etzi: gaurkoa Untzagan izango da, 19.00etan, "Beraien eskubideen jabe, gaixo

larriak etxera" leloari jarraituta; biharkoa ere 19.00etan izango da, baina Toribio Etxebarria kalean ("Beraien eskubideen jabe, kondena beteta dutenak kalera, biziarteko zigorrik ez"). Eta domekakoa 13.00etan izango da, Untzagan ("Beraien eskubideen jabe, euskal presoak Euskal Herrira"). Eta presoek aste osoan egindako gose grebari babesa azaltzeko asmoarekin, hainbat lagunek barraualdia egingo dute asteburuan.

anzorik anzo



Ego Gain oinezkoentzat moldatuko dute

Ego Gain kalea eta Isasi kaleko 2. zenbakia moldatu eta itxuraberritzeko asmoa azaldu du Udalak, inguruari "merkataritzarekin ondo uztartuko den irudiaren" bila. Herriko erdialdeko beste kale batzuetan egindakoari jarraituz, inguru horrek ere bestelako itxura izango du laster. Kontuan izan behar da El Corte Inglés berria zabaltzarekin batera bertatik pasatzen den jendearen kopuruak nabarmen egin duela gora. Horrez gain, Untzagatik horren gertu egonda, nahitaez horrek lotura ematen da eta ezin dezakegu ahaztu honezkero Untzaga eta Zuloagatarren kaleetan itxuraberritze behar horiek begibistakoak direla eta, horrez gain, kale biak asteburuetan oinezkoentzat ixten direla hainbat orduz. Ildo horri jarraituta, orain gauza bera egin nahi dute Ego Gain eta San Agustin kaleekin. Izan ere, kale horretarako proiektua berez onartuta dago eta egina beharko luke, baina Errebalerako zeuden asmoak baldintzatuta, inguru honetarako beharrak atzeratzea erabaki zuten. Hala ere, Errebalerako proiektuak aurrera egingo ez duenez, orain San Agustin moldatzen hasteko une egokia dela uste dute Udalean.

eibar kalea

Asua Erreka kalea

Barakaldo kalearekin perpendikularrean dagoen kaleko zenbaki bikoiti zein bakoitietan lantegiak dira jaun eta jabe. Sarrera berezia ere badu, kalera daraman tunelaren fatxada orain urte batzuk kolore biziz margotu zutenetik. Tallarra gatzetxea ere bertan dago.

Pegora kopurua: 2. Erroldatutakoak: 83.



TEEN-
AJEA



Aratosteetarako aste bi eskas falta dira, baina herria hasi da poliki-poliki koko-jantzien giroan murgiltzeko prestatzen. Kasteako, dagoeneko badugu kartela. 23 urteko Miriam Azpilikueta eibartarra da egilea, pozik geratu dena. Eta eibartarrei ere bere kartela gustatzea espero du.

MIRIAM AZPILIKUETA,
Aratosteetako kartel irabazlea:

**“Gazteok sormena
dugula erakutsi
behar dugu”**

**- Zertan inspiratu zinen
kartela egiteko orduan?**

Krisiarekin zerikusia zuen zerbait egin nahi nuen, askotan koko-jantzietan diru asko xahutzen dugulako urtean behin bakarrik janzteko. Elementu gutxirekin mozorroto gaitezke eta, gainera, euren erabile-raren arabera, koko-jantzi desberdinak lortu ditzazkegu; hortaz, eskuen funtzioa kartelan.

- Lehenengo aldia da horre-lako saririk irabazten duzuna?

Kartelen kasuetan, bai. Txikitik margo lehiaketa batzuk irabazi nituen, baina sari honekin konparatuz...

- Zergatik hartu duzu parte?

Orain arte ez dut denborarik izan, ikasketengatik proiektuekin leporaino nenbilerako; amaitzen ari naiz eta denbora gehiago dut. Gainera, Eibarko gazteok sormena dugula erakutsi behar dugu.

- Diseinu grafikoan eta dibu-joan murgilduta zaude ala afizio hutsa da?

Arkitektura ikasten dihardut eta diseinu grafikoak jakitea oso erabilgarria da proiektuen aurkezpenak antolatzeko; horregatik hasi nintzen nire kontuz Photoshop-a erabiltzen. Horrez gain, betidanik gustatu izan zait marrazketa. Proiektuetan eskuko marrazketa eta metodo grafikoak aldi berean erabiltzen saiatzen naiz.

- Zer sentitzen duzu jakinda herria zure kartelez mozorro-tuta egongo dela Aratoste jai hauetan?

Oso arraroa egingo zait ikustea nik egindako gauza bat leku guztietan! Hala ere, oso pozik nago egin dudanarekin eta espero dut jendeari nire kartela gustatzea.

- Amaitzeko... Aratosteak gustoko dituzu?

Bai, noski! Koadrilarekin beti egiten dugu koko-jantzien "brainstorming"-a... Mozorroa egiteko ere elkartzen gara. Aurtan zailagoa izan da elkartzea, baina saiatuko gara...

MAITANECASTILLOOTAOLA

*Bizipozez beteta
esnatzen den
txoritxo kantarienari
eskerrik beroena ematea
besterik ez zaigu geratzen;
maitasunez, alaitasunez,
itxaropentsu, zuk irakatsi
zenigun bezala.*

*Zure irribarrik goxoen
gogoratzeak aurrera egiteko
kemena emango digulako;
bide luze honetan hau
hasiera besterik ez da eta.
Beti izango zaitugu
gure bihotzetan
asko maite zaitugu* **MARTXAN.**

ZURE KUADRILLA



III. urteurrena

La Salle Azitaineko sei ikaslek 'Ni kazetari' lehiaketa irabazi dute albiste onenaren atalean. Diarivasco.com-ek antolatutako lehiaketa honetan 2. Hezkuntzako 42 taldek hartu dute parte; beraz, ez da edonolokoa eibartarrek lortutakoa. Informatika izan da protagonista, bai erabilitako gaiean, bai lanerako orduan.

Software libreari buruzko albiste batek 'Ni kazetari'-ren albiste onenaren saria eman die La Salle Azitaineko **Sergio Morenza, Mikel Undagoitia, Nestor Gisasola, Aitor Divasson, Erik Lantz eta Xabier Belastegiri**. "Hemen da software librearen arloan errege denaren azkena, Ubuntu 9.10", titulu hori daralma La Salletarren albisteak eta bertan Windows 7 eta Ubuntu 9.10aren arteko konparaketa egiten da, bakoitzaren xehetasunak islatuz eta, zehazki, Ubuntuaren abantaila eta onurak azpimarratuz".

Kazetariak.com

Egunkari digitala

La Salleko ikasleek egin-dako lana, hala ere, ez da Ubunturi buruzko albistera murrizten, izan ere, egunkari digitala da eurek egin dutena eta hainbat albiste jorratu dituzte, denak euskeraz. Horrela, Eibarko El Corte Ingles berriari buruzko herritarren iritzia jasotzeko kalera irten dira, Miren Agur Meabe idazleari elkarrizketa egin diote 'Zer da, ba, maitasuna?' liburuaren gainean, osasunari buruzko erreportaia landu dute,artzelona eta Real Madril en aurkako neurketa aurretiko albistera jorratu dute, martxoan dendetara iritsiko den 'Battlefield: Bad Company 2' jokoa-ren 'Closed Beta'-ren gainean aritu dira, Leitzako atentatuaren gainean ETAK egin ez zuela informatzen dute, 2000 urteko lehenengo hamarkada musikaren ikuspuntutik aztertzen dute, egunean 300 orgasmo dituen emakume baten kasu bitxia dute mintzagai eta The Horribly Slow Murderer With The Extremely Inefficient Wea-pon dokumentala dute hizgai kulturari.



Baina ez hori bakarrik; izan ere, UndaTV ere aurki daiteke eurek sortutako orrialdean. Bertan, eguraldiaren iragarpena, Barça 1-0 R. Madril, Barrio Sesamok 40 urte betetzen ditu eta beste hainbat bideo daude ikusgai.

Argazki eta bideoak

Hilabete eta erdiz lanean ibili dira ikasle hauek eta, emaitzan ikusten denez, web-gune batek eskaintzen dituen aukera ezberdinei zukua atara die al-

bisteak, argazkiak, bideoak... sartu dituztelako bertan. Egunkari digitala osatu dute bere osotasunean, eta ona gainera, jasotako sariak erakutsi duen bezala.

Baliteke ikasle hauen artean kazetaritza sena piztea edo, agian, bazuten sena hori aurretik piztuta. Argi geratu dena da, behintzat, talentua badaukatela lanerako gaitasunarekin batera. Kazetaritza digitalean eman dute lehen pausoa. 2.0 bertsioko kazetariak bihurtu dira.



Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ 943 12 02 00 FAX: 943 12 02 04

1 Kardiologia	8 Pediatria
2 Zirugia	9 Psikiatria
3 Dermatologia	10 Radiologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	11 Traumatologia
5 Análisi Klinikoak	12 Barne Medikuntza
6 Ortodontzia	13 Koloproktologia
7 Otorrinolaringologia	14 Erizaintza
BERRIA: Foto-depilazio Unitatea	15 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa

Mokka

interiorismoa

BARNE DISEINUA
GRENDOEN KOORDINAKETA
DISEINU GRAFIKOA
PROIEKTU TEKNIKOAK
OHALAK
ALTZARIAK
PAPERAK

Bidebarrizeta 24, Eibar
tlf: 670830525

Gaur goizean presentau dittue udaletxeko pleno aretuan 33. Antzerki Jardunaldixak. Urtetik urtera errepikatzen dan esaldixa izanda be, errealidadia islatzeko berba egokixaguak topatzia gatxa da: Narruzko Zezen Hezkuntza Esparruko Antzerki Taldiak osatutako programaziñua urtetik urtera hobia da, Txema Cornago eta Juan Ortega buru dittuan lantaldiak urte osuan egitten daben biharraren fruitua. Eta, atzera be, Aratoste bezperaren inguruan hasi eta martxua bittartian, hillebetian ixa egunero antzerkixa protagonista izango da gurian, bere zabaltasun osuan.

Azken zortzi urtiotako martxari jarraituta, kalian hasiko dira jardunaldixak, personaje diferentiak batuko dittuan Giza Irudixen VIII. Erakustaldixarekin. Otsaillaren 10ian Untzaga plazan eta Toribio Etxebarria kalian izango dira Bartzelonako M.P.C.-ko bost aktore, baktotxa irudimenezko personaje ikusgarriren bateri bizitza emoten: Orlandok Ipar Amerikako indixua ekarriko desku, Ana María Lunak maitagarri urdiñaren itxuria hartuko dau, Jorge Balmasedak ainguru grisarena, Fabián López gargola billakatuko da eta Julio García, barriz, soldadua izango da arratsaldian hasi eta illuntzera arte luzatuko dan saiuan.

Dana dala, askorendako jardunaldixen hasiera ofiziala urtero aktore ezagunen batek emoten daben hitzaldixarekin



batera aillegatzen da. Otsaillaren 16xan Coliseo antzokixan Juan Ortegak aurkeztuko daben hitzaldi-solasaldixak Daniel Freire aktoria izango dau protagonista. Argentinan, Buenos Airesen jaixotako aktoriak, gaztia izanda be, ibilbide luzia daroia antzerkixan, zinian zein telebista saiuetan. Gaiñera, antzerki munduan zuzendari zein ekoizle lanak egin dittu Freirek. Bere biharrak izan dau saririk be: 2005ian "Unión de actores" dalakuak aktore protagonista onenari sarixa emon zetsan, "Bent" antzezlanian egindako interpretaziño bikaiñarengaittik. Askori, baiña, telebistari esker egingo jako ezaguna bere aurpegixa, "Doctor Mateo" telesailari esker. Halanda be, "El actor y sus vidas" izenburuko hitzaldixa emotiaz gain, antzerki giruan bertatik bertara ikusteko aukera paregabia izango dogu oinguan, martxuaren 5ian bera protagonista dakan "Mercado Libre" antzezlanian.

Eta urteroko moduan, ekitaldixaren testuinguruan banatuko dittue aurten 25. ediziñua betetzen daben Narruzko Zezen antzez gidoi eta artikulu lehiaketako sarixak.

Estilo guztietako lanak

Alternatibo adjetibua izenari lotuta daroian Cuarta Pared taldekuak Euskal Herrixan estreñekoz presentauko dabe euren lanik barrixena: "Siempre fiesta", gaur eguneko gizartian topatzen dittugun gaixetan inspirautako trilogixia, Javier G. Yagüek zuzendutakua.

Hurrengo antzezlanak, barriz, oso bestalako izaeria eukiko dau: "Anbotoko Mari eta orrazi galdua" umiendako antzezlanarekin etorriko jakuz Glu Glu Produzioak talde bizkaitarreko lagunak. 4 urtetik gorako umiendako egokixa dan euskerazko lan horretarako sarrerak Coliseoko ohiko salmenta sistemari jarraituta dagoz salgai, martitzen arratsaldetan antzokiko lehiatillan eta, bestela, Telekutxa eta Servikutxa zerbitzuen bittartez.

Valenciako Arden Producciones taldiak gurian estrenua izango dan beste lan bat ekarriko dau: "El idiota de Versailles", testu garaikidien bittartez antzerki klasikuarekiko gustua berreskuratzeko ahalegiñari erantzuten detsan ikuskizuna.

Atzerriko konpaiñendako tarterik ere badago jardunaldixen programaziñuan: Poloniako Ireneusz Krosnyk berak zuzendutako eta era berian antzeztutako biharra ekarriko desku: "Krosny". Berbak erabilli barik, istorixo bat bestiarekin lotzeko izugarritzko ahalmena erakusten dau, mimita maisuki menperatuta.



Bikoteatro taldiak "dibertimento" izenburuko trilogixa osatuko dau "Euskarazetamol" lanarekin.



OTSAILEKO LANAK

10	EGUAZTENA	Giza Irudien VIII. Erakusketa	<i>Untzagan eta T. Etxebarrian</i>
16	MARTITZENA	Hitzaldia: Daniel Freire	Coliseoan, 19.00etan
17	EGUAZTENA	"Siempre fiesta" - Cuarta Fiesta	<i>Unibertsitatean, 20.30etan</i>
20	ZAPATUA	"Anbotoko Mari" - Glu Glu	Coliseoan 17.00etan
21	DOMEKA	"Krosny" - Ireneuzs Krosny	Coliseoan 20.30etan
22	ASTELEHENA	"La vida por delante" - Focus	Coliseoan 20.30etan
23	MARTITZENA	"La vida por delante" - Focus	Coliseoan 19.30 eta 22.00etan
25	EGUENA	"666" - Yllana	Coliseoan 20.30etan

Concha Velasco Coliseoan

"La vida por delante" antzezlanak, barriz, Martxuaren 8xaren testuinguruan presentaziñorik bihar ez daben Concha Velasco ekarriko dau geurera, Rubén de Eguía, Carles Canut eta José Luis Fernández aldamenian dituala. Eta horren aktore ezagunak izan barik be mailla haundiko aktuaziñuak eskindu ohi dittuen talde unibersitarixorik be ez da falta egitarauan: Ourenseko unibersidadeko ikasgelako Maricastaña taldekuak "Odisea espacial" izenburuko lana presentauko dabe. Hónek, gaiñera, Eibarko jardunaldixak eskintzen daben aparteko testuingurua aukeratu dabe lana jendeaurrian lehenengoz taularatzeko.

Ikuskizun barritzailliak

Ander Lipusek zuzenduta, barriz, "Babiloniako loreak" euske-



Concha Velascok "La vida por delante" antzezlan taularatuko dau egun bitan.

razko montaje barritzaillia ikusteko aukeria izango da Antzerkiola Imaginarioa taldieren eskutik. Eta jardunaldixetan behin baiño gehixagotan parte hartu izan daben Madrilgo Producciones Yllana taldekuak "666" keiñuetan oiñarritutako antzezlanarekin ailegauko dira Eguen Golfua izenarekin bataiatu daben egunian.

Helduendako txotxongillo ikuskizun batekin hartuko dau parte jardunaldixetan Miguel Gallardo aktoriak, jaialdi inportantietan saritutako "Don Juan, memoria amarga de mí" ikuskizunarekin.

Atzera be Martxuaren 8xa goguan, Argentinako Timbre 4 taldekuak "La omisión de la familia Coleman" Argentinako antzoki ia guztiak ezagutu dittuan Claudio Tolcachir-ek zuzendutako antzezlan taularatuko dabe.

Estreneukin jarraituta, Creaciones Artísticas Las 4 Esquinas Badajozeko taldiak "El jardín del mundo" Memé Tabaresek zuzendutako antzezlan ekarriko desku. Talde gaztia izanda be, nortasun haundikua da eta bere lanetan ez da sakontasunik falta.

100 m²ko autozerbitzua

altzariak. menajea. bainurako osagarriak. ehungintza. argiztapena. opari pertsonalak. osagarriak.

OKora .eibar
Isasi, 18 943 53 12 59

MAXIMO ARGOITIA ARRIETA

(2010eko
urtarrilaren 26an hil
zen, 91 urterekin)



*Urak dakarrena
urak daroa
Zuk emandakoa
gurekin geratzen da*

Zure familia.



MARTXOKO LANAK



Yllana taldiaren antzezlan arrakastasua otsailaren 25ian izango da Coliseoan.

Euskal antzerkigintzako izen haundixekin jarraituta, Patxo Telleriak "Euskarazetamol" Ez Dok Hiru. Brikoteatroa konpainiak "dibertimentos" izenburupian osatutako trilogixaren azken zatixa ekarriko desku, euskeraz eta Jokin Oregiren zuzendaritzapian. Inauguraziño ekitaldiko hizlarixa, barriz, "Mercado Libre" antzezlarian ikusteko aukeria egongo da, Yolma Valdésekin batera eta Luis Araujoren aginduetara. Lope de Vegaren "La niña de plata" antzezlana, barriz, Alcalá-ko unibersidadeko antzerki taldeko antzezle talde ederra batuko dau taula gaiñian. La Papa Teatro talde bizkaitarrak, barriz, genero indarke-rixaren gaiñeko antzezlana ekarriko desku: Ricardo Combi zuzendarixaren "Rosas Rojas". Eta musikak eta antzerkixak bat egingo dabe Zaragozako Teatro Che y Moche konpainiaren "Oua Umplute" lanian, benetan orjinal eta ikusgarrixa dan antzezlarian.

2	MARTITZENA	"Don Juan" - Pelmánec
3	EGUAZTENA	"Euskarazetamol" - Bikoteatroa
4	EGUENA	"Barcelona (un mapa)" pelikula
5	BARIXAKUA	"Mercado libre" - Concha Busto
6	ZAPATUA	"Oua Umplute" - Che y Moche
8	ASTELEHENA	"Hnuy Illa" - Tantaka
9	MARTITZENA	"La huella" - Txalo
10	EGUAZTENA	"Arrastoa" - Txalo
11	EGUENA	"Forasteros" pelikula
12	BARIXAKUA	"Rosas Rojas" - La Papa
13	ZAPATUA	"La niña de plata" - UAH
16	MARTITZENA	"El Jardín del mundo" - 4 Esquinas
17	EGUAZTENA	"La familia Coleman" - Timbre 4
18	EGUENA	"Babiloniako loreak" - Antzerkiola
21	DOMEKA	"Odisea Espacial" - Univ. Ourense
24	EGUAZTENA	"El truco de Olej" - Bosquimanos
25	EGUENA	"X. Asier Errasti" laburmetraiak
26	BARIXAKUA	"El idiota en Versalles" - Arden

Eta aurtengo ediziñoeko karteria biribiltzen eta Gipuzkuatik aldendu barik, Kukai-Tanttakak "Hnuy Illa" dantza ikuskizuna taularatuko dau, euskeraz eta Txalo Producciones taldekuak, barriz, egun bittan jardungo dau taula gaiñian "La Huella" eta "Arrastoa", antzezlana berarekin, gazteleraz lehelengo egunian eta euskeraz hurrenguan.

Ventura Pons, Antzerkixa Zineman ataliam

Aittatu barri dittugun antzezlanean aparte, jakiña, Antzerkixa Zineman atalaren barruan pelikula bi emongo dittue, Ego Ibar zineklubarekin alkarlanian: "Barcelona (un mapa)" eta "Forasteros", bixak be Ventura Pons-ek zuzendutako filmak. Eta martxuaren 25ian Asier Errasti ikus-entzunezkuen azken jaialdixan

parte hartu eben lanetako baztuz proiektauko dittue Hezkuntza Esparruan, ondo zaindutako laburmetraia bilduman.

Aurresalmenta otsailaren 6tik aurrera

Jardunaldixetako lanetarako sarreraren aurresalmenta Coliseoan bertan egingo da, otsailaren 6xan, 7xan, 8xan eta 13an, 10.00etatik 16.00etara. Horrez gaiñ, funziño baxotxa amaittu ondoren, hurrengo antzezlantarako sarrerak erosteko aukeria egongo da, beste urtiotan moduan. Eta funziño baxotxa hasi baiño ordubete lehenago egunerako sarrera erosteko aukeria be egongo da, antzokiko lehiatillan. Preziua, barriz, 11 eurokua izango da kasu gehixenetan, baiña badagoz merkiaguak eta zeozer karua-

Unibertsitatean 20.30

Coliseoan 20.30

Unibertsitatean 17.30 eta 21.00

Unibertsitatean 20.30

Coliseoan 20.30

Unibertsitatean 20.30

Coliseoan 20.30

Coliseoan 20.30

Unibertsitatean 17.30 eta 21.00

Unibertsitatean, 20.30

Unibertsitatean 20.30

Coliseoan 20.30

Coliseoan 20.30


Coliseoan 20.30

Unibertsitatean 20.30

Coliseoan 19.00

Unibertsitatean 17.30 eta 21.00

Unibertsitatean 20.30



Umiendako euskerazko lana ikusteko aukera egongo da otsailaren 20xan.

guak kobrauko dittuen ikuskizuna. Edozelan be, betiko moduan antolatzailliak ahalegin berezixa egin dabe, barriro be, diru faltia iñor antzerkixa juan barik geratzeko arrazoia ez izateko.

URKIZU, 7 ☎ 943 82 04 94 / 943 12 11 20 Faxa: 943 12 11 40
uthemek@uthemek.com



SPK- Zeramika, silizioa

ISCAR - Trontzaketa eta fresadorarako erreminta bereziak

ROY - Diamante eta boraxezko harriak

ETXEBIZITZA ADOSATUAK

Lehen mailako
materialekin
egindakoak

Tel. 943 76 97 97

Prezio Ezin Hobeak: **249.210** eurotik hasita
www.inmokorosti.com

ERAIKUNTZA
AMAITUA

SALGA
ELGETAN

Kanpoko hotzaren aurrean...



...ETXEKO BEROTASUNA

2010eko urtarilla

AMAÑA
FONTANERIA

BAINUEN INSTALAZIOA ■ SUKALDEA, GASA ETA KALEFAKZIOA ■
BAINUEN DISEINUA ORDENADOREZ ■ AIRE EGOKITUA

T. Anitua 12

Tel. 943 201 930

"JARDINES" ITURGINTZA

UR BERO ETA HOTZAREN INSTALAZIO MOTA GUZTIAK
KALEFAKZIOA

BAINUGELARAKO INSTALAZIO SANITARIOAK

ITURGINTZA, GASA ETA KALEFAKZIOA

Tailerra: JARDIÑETA, 11 BEHEA Telefonoa: 943 20 69 13
Faxa: 943 25 49 29 Mobilak: 615 78 26 38 / 615 78 26 37





MUGICA
ITURGINTZA

San Juan 15 -EIBAR-

Tfnoa. 943 20 10 30

- KALEFAKZIOA
- FONTANERIA
- GAS INSTALAZIOAK
- BAINUETAKO BERRIKUNTZAK
- AIRE EGOKITUA
- EGUZKI ENERGIA
- LURREKO KALEFAKZIOA
- IKERKETA ENERGETIKOAK
- HANSGROHE txorroten banatzailea




Energia aurrezteko bideak

Zeren arabera erabakitzen dugu gure etxean calefakzio sistema bat edo beste jar-tzea? Egokiena aukeratzeko hainbat gomendio erraz eta praktikoa jarraitzea besterik ez dugu behar.

Etxearen energia-kontsumoa hainbat faktore-
ren arabera da, besteak beste, etxea kokatua dagoen gune klimatikoa, eraikuntzaren kalitatea edo isolamendua. Hala ere, etxe batean hasiera-


rik instalatuta dauden elementuak eta bizilagunak erosi behar dituenak be-reizi behar ditugu. Instalazio finkoetan (calefakzioa eta ur beroa), etxeetako energiaren kontsumoa %67koa da; izan ere, familia batek etxean erabiltzen duen energia guztiaren erdia etxea berotzeko erabiltzen du.

Hartu beharrekoko lehenengo neurria etxea ondo isolatzea da, eta tenperatura egokia izateko ter-






mostatoak erabiltzea gomendatzen da, hau da, norberak bere beharretara egokituko du calefakzioa etxean. 20 gradu nahikoa da etxeko konfort-ari eusteko. Bestelako gomendioak ere badaude: gauean itzali calefakzioa, erradiadoreetan termostato-balbulak jarri (energia %8-13 aurrezten da), denbora luzean etxera ez

bazoaz termostatoa 15 gradutan jarri, galdara sarritan berrikusi izan ditza-
ken akatsak antzemateko, erradiadoreen ura purgatu, gutxienez urtean behin, erradiadoreen gainean edo aldamenean ez utzi ezer, gela bakoitzeko leihoak 10 minutuz ireki airea berritzeko eta gauez itxi pertsiara eta gortinak, beroak ihes ez egiteko.



Deshumidifikazioa
Aire garbiketa
Neurketa tresnak
Klimatizazioa



Bidebarrieta, 46 -behea Tel. 943 20 65 59 Faxa. 943 20 80 72 www.ostarte.com info@ostarte.com

santillán klimadenda™

Energia berriztagarri eta klimatizazioan aire fresko bolada bat

Txaltxa Zelai, 14 / Tel. 943 03 10 00 / Faxa. 943 53 10 18 / info@klimadenda.com / www.klimadenda.com

CALEFACCIONES



KALEFAKZIOA

Kalefakzio eta gas instalazioa. Mantenimendua.

KLIMATIZAZIOA

Aire egokitua, bentilazioa eta aire kanporaketak.

ITURGINTZA

Estaziño 14 - behea (ERAKUSKETA) TELEF. ETA FAXA: 943 12 18 33



ELEKTIBAR, S.L.U. ELEKTRIZITATEA

PROIEKTUAK ARGIZTAPENA INSTALAZIOAK

JOSU BENGOA

Aurrekontuak konpromezurik gabe

Indalezio Ojanguren 2, behea, 27 EIBAR
☎ 943 70 05 42 Faxe: 943 53 02 31


- * Denetariko erreformak
- * Telekomunikazioak
- * Ate automatikoak
- * Bero urdina

INDA *iturgintza*

UR, GAS ETA KALEFAKZIO INSTALAZIOAK

- **Industrietarako instalazio bereziak**
- **Fuel Airea**
- ...
- **Proiektuak eta aurrekontuak**

- *Bainu eta sukaldeen erreformak*
- *Gas instalatzaile baimendua*
- *Iturgintza (arlo guztiak)*
- *Gasa eta kalefakzioa*
- *Altzari erakusketa*



INDA

Telefonoak:

943 12 18 64

(tailerra)

669 29 34 63

(mobila)

Faxa:

943 12 18 64

Asua-Erreka, 2

e-maila: fontaneriainda@euskalnet.net

Etxearen isolamendua: konfort-a eta aurrezpena

Etxebizitzaren isolamendu termikoa ezinbestekoa dugu etxean tenperatura egokia izateko. Izan ere, gaizki isolatua dagoen etxeak energia gehiago behar du: neguan oso azkar hoztuko da eta udan, berriz, gehiago berotuko da eta azkarrago gainera. Isolamendu on bati esker, zaratak murrizteaz gainera, beroak ihes egitea ere ekidingo dugu. Hala ere, beroa leku askotatik joaten da, batez ere leiho, ate, tximinia eta hodietatik. Beraz, zure etxean, urte osoan, tenperatura egokia izan nahi baduzu har itzazu hainbat neurri. Leihoak isolatzea izan daiteke konponbide-etako bat.



Leihoaren isolamendu termikoan zerikusi handia dute beirak eta markoaren arotzia motak. Kristal bikoitz eta leiho bikoitzei

esker beroaren galera erdira jaitsiko dugu, eta aire-korronteak eta uraren kondentsazioa nabarmen murriztuko dira. Arotzia

motari dagokionez, burdina edo aluminioa bezalako materialek eroankortasun termiko altua dute eta beraz, hotza eta beroa erraz sartzen uzten dute. Adierazgarriak dira, aldiz, zubi termikoaren hausturako leihoak, isolatzeko materiala baitute markoaren barne eta kanpoaldean. Horrez gainera, pertsiaren kaxetinek zirrikiturik ez izatea eta horiek ondo isolatuta egotea komeni da. Etxean tximinia badugu, erabiltzen ez dugunean, tiroa itxi beharko dugu.

Isolamenduaren hobekuntza txikiekin energia eta dirua aurreztuko dugu, %30era arte kalefakzioan eta aire girotuan.



IGA S.L. KRISTALDEGIAK

TAILER ETA BULEGOAK: Legarre, 15 –EIBAR–
Tfnoa. 943 70 25 41 eta 943 70 24 95
Faxa. 943 70 24 95 Mobila. 670 21 46 25

ERAKUSKETA ETA SALMENTA:
Birjiñape, 1 behea –EIBAR–
Tfnoa. 943 20 20 40

ERAKUSKETA ETA SALMENTA:
Zeharkalea, 12 –ERMUA–
Tfnoa. 943 17 69 56



ACHA Kristaldegia


Errekatxu, 3 EIBAR

☎ eta faxa: 943 20 39 03 c.acha@euskalnet.net

CLIMALITekin
isolatzaile onena lortuko duzu
akristalamendu bikoitzaz

METALEZKO ERAIKUNTZAK ALUMINIOZKO ETA PVC-KO AROZTEGIA

1984an sortua. Aluminio, PVC eta aluminio-egurrezko leihoen fabrikazioa. Lan mota guztiak honako esparruetan: burdin eta altzairu herdoilgaitza, atek, barandak, makinendako babesak, tximeneak, nabarrak, etb.



Txonta, 30 - 1. eta behea

Tfnoak: 943 12 13 67

Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA
Urkizu, 26

Tfnoak: 943 12 74 01

info@ulmar.net www.ulmar.net




'Hillerri nuklearrak' gora, 'hillerri nuklearrak' behera dabiz Espainiako herri batzuetan azken egunotan. Aldekuek diñue diru asko eta lana sortzen dabela; kontrakuek, bestetik, hondakin nuklearrak euren osasunian sortu leiken kaltiak ipintzen dabe mahai gaiñian, bestiak beste.

Eibarren "hillerri nuklerra" egingo zenduke?



JUAN MARI BERAZA
40 urte
tabernarixa


Ez. Gauza nuklearrarekin zerikusixa dakanak bildurra emoten desta eta ez dakat konfiantza haundirik halako gauzen gaiñian. Gaiñera, jakinda zelan egitten diran hamen gauzak, pentsatzen dot hillerri horrek ez zebala segurtasun haundirik eukiko.



MARIA JESUS GARATE
61 urte
langabia

Neregaitik ez neban Eibarren ipiñiko, baiña kontzientia naiz leku bateren baten ipiñi biharko dala. Neri bildurra emoten deste halako gauzak. Esaten dabe energia nuklearra biharrezkua dogula, guk be ordenadoria, telebisifua, argixa... nahi dogulako, baiña ni kontra nago.

NEREA ARREGI
51 urte
langabia



Ez neban Eibarren halakorik ipiñiko; dirua emon edo lanpostuak sortu arren, horrek ez dau konpentsatzen. Lana eta dirua sortuko eban beste gauza bat izanda... Ez desta berez bildurrik emoten, baiña gauza nuklearrarekin zerikusixa badaka, atzera botatzen detsu berbiak berak.

IÑAKI SABAN
55 urte
langabia



Ez nago ados energia nuklearra erabiltziakin, ez eta honek sortzen daben hondakiñekin. Hori kontutan hartuta, Eibarren holakorik ez. Energia nuklearra hillerri horretetan gorde eta urtiak eta urtiak egongo da han, ia zer gertatzen dan.



EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - beheko eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errausketa laber

Egoibonen (Signo poligonoz)

Partikular, multo eta aseguru enesi zerbitzuak

Koroak - Eskelak - Urtumano eskelak

Euskal Herri osoko ospitaleen hartzen zerbitzu

Nazio eta Nazioarteko trilogioak

Mugica Ehorzketa

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

San Andres Gozotegia

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Lau talde txapelaren bila foball-zaletuan

JOSERAUTO (34), DURANGO ETA TXOKO (33) ETA EZ DOK (30) dira Ligako txapelaren bila diharduten lau taldeak. Atzerago daude Esmorga (25 puntu), Alkideba (23), Tankemans (20), KOX Azkena eta Tecnografik (17), Areto (16) eta Clínica Dental (14). Eta, azkeneko postuari ihes egiteko lehia, Sporting (7), Sinesponsor (5) eta Caserío (4). Azken jardunaldian, bestalde, sailkapeneko goiko postuetako en garaipean eman ziren: JoserAutok 4-2 irabazi zion Esmorgari, Txokok 4-0 Sinesponsor-i, Durangok 4-1 Somos Sporting-i eta, justu samar izan bazen ere, Ez Dok Lanusek 1-0 nagusitu zitzaion Aretori. Tankemans-JoserAuto eta Esmorga-Durango dira asteburuko partidu nagusienak.



IKUSITA LIGA AMAIERARAKO SAILKAPENENKO LEHENAZATEAK duen garrantzia, domekan Ipuruan jokatu den partiduaren esanahiak interes berezia izan dezake. Ponferradinak puntu bakarreko alde kentzen dio Angel Viaderok



Gutxi egin dutena lortu du Javi Rosek: aurkeztu aurretik gola sartzea Eibarrekin.

zuzentzen duen taldeari eta, hori dela-eta, aukera polita dute eibartarrek Ponferradan galdutako (1-0) partiduaren mende-kua hartu eta lidergoa berreskuratzeko. Partidurako ez da uste entrenatzaileak aldaketa handirik egingo duenik; gainera, Lehiaketa Batzordeak azken partiduko bigarren txartela kendu dio Manu Garcíaari eta jokatzeko moduan egongo da. Domekan Realak lagata debutatu zuen Javi Ros ere

partidakoa izango da. Carlos Ruben, bestalde, fitxa barik geratu da, baina Eibarrek kontratua berritzea eskaini dio.

Eibar B Agurainen

Salvatierra multzoko azken sailkatua bisitatuko du 3. mailako Eibarrek asteburuan. Aukera polita dute Iturbek entrenatutakoek aurrera egin eta jaitsiera postutik ihes egiteko, arabarrak (9 puntu bakarrik) maila ia galduta baitaukate.

Saskibaloit taldeak igoera fasetik at

GIPUZKOAKO LIGAKO LEHENENGO FASEA AMAITUTA, gure herriko taldeek ez dute igoera fasean parte hartzeko txartela lortu. Ruibal Alquiler de Vehículos gertu egon da multzoko lehen bi postuetako bat lortzeko, baina azkenean 3.arekin konformatu behar izan du, bigarrenaren-gandik garaipen bakarrera. Taldearen irregulartasuna izan da helburutik kanpo laga duena: etxean partidu guztiak irabazi baditu ere, kanpo-

koetan asko jaitsi da-eta Ruibalen errendimendua. Katu Kalek, bestalde, urrutiago izan du sailkapena eta bere ibilbidean ere irregulartasuna nagusi izan da.

Azken jardunaldian biak nagusitu ziren Ipuruan jokatu partiduetan: Katu Kalek Sorraluze azken sailkatua egurtu zuen (59-38) eta, askoz gehiago kostata, Ruibalek Mondragon Unibertsitatea 2. sailkatua gainditu zuen, luzapena jokatu ondoren.



Erregeetako trofeo Kalamua Judoan

URTERO MODUAN, ERREGEETAKO TORNEOA JOKATU ZEN KALAMUA JUDOKO INSTALAZIOETAN. Aurreko asteko egue-nean jokatu lehiaketa horretan 50 bat neska-mutilek jardun zuten eta, Eibarko ordezkariekin batera, Sorraluzeko Ukaldi Judo Klubekoak ere izan ziren. Bost urtetik hasi eta 12 urtera arteko judokak parte hartu zuten ikusle asko izan zuen torneoan.

Gipuzkoako Ligako xake taldearen garaipena

MUTRIKUKO TXATURANGAREN AURREAN, 3-1EKO EMAITZAREKIN NAGUSITU ZEN 1. mailako taldea Eibarren. Beorlegi, Freire eta Lópezen garaipenek puntu garrantzitsuak eman dizkiote taldeari. Euskal Ligako taldea, bestalde, esku hutsik etorri zen Sestaotik, azken honekin 4-0

galdu ondoren. Haritz Garro, Olmo, Arana eta Olabek aurrean izan zuten maila ikusteko parada izan zuten: azken denboraldian ere zeozergatik amaitu zuten sailkapeneko 1. postuan. Zapatuan eibartarrek Amurrioko Xake Taldea hartuko dute Deportiboan, 16.00-etatik aurrera.

Gaur, bihar eta etzi pelota jaialdiak Astelenan

GAUR ETA BIHARKOAK EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO PELOTARIEI DAGOZKIEN NEURKETEKIN eta etzi-koan pelota profesionalaren emanaldia ekarriko diguna. Gaur, 20.15etatik aurrera, Agirresarobe-Erik bikotea kadeteen 2. mailan Eskoriatzako ordezkarien aurka lehiatuko da; eta, jarraian, Karmona-Agirrebeña seniorretako 2. mailan aretxabaletarrak izango ditu aurrez-aurre. Biharko jaialdia goizeko 11.00etan hasiko da eta hiru neurketa izango ditu: 3. mailako kadeteetan, Ruiz-Andonegi Donostiako bikotearen aurka; 3. mailako seniorre-

tan, Hidalgo-Alvarez Alegiako ordezkarien kontra; eta Euskal Ligako 22 urtetik azpiko buruzburukoan, Unamunzaga eta Tolosako ordezkaria, nor baino nor izango dira.

Azken asteburuan denetarik emaitzak eskuratu dituzte Deportiboko ordezkariak: horrela, Etxaniz-Bengoetxea (22-11) eta Agirresarobe-Erik (22-9) garaile izan ziren bitartean, Larrauri-Andonegi (20-22), Hidalgo-Alvarez (8-22) eta Gaizka Unamunzagari (9-22) galtzea egokitu zitzaion.

Binakako txapelketa nagusia

Txapelketa horretako norgehiagoka batek hartuko du domeka arratsaldeko protagonismoa Astelenako jaialdian. Irujo-Beroiz sailkapeneko liderak Bengoetxea VI.a-Otxandorena bikotearekin neurtuko ditu indarrak. Lehenengo partiduan, Aspe eta Asegarcekoen arteko beste lehia bat izango da, oraingoan 2. mailako txapelketari dagokiona: Retegi Bi-Cecilio Díaz-Oteizaren aurka. Amaitzeko, Apezetxea-Urberuaga eta Ongay-Galarza VI.aren arteko lehia izango da.




Astelenan askotan jokutzen ez duen Oinatz Bengoetxea ikusteko aukera izango da.

Arrateren bazkide kanpaina otsailaren 5era arte

GABONETAN HASITAKO HARPIDEDUN BERRIAK LORTZEKO KANPAINA

otsailaren 5era arte luzatuko dute Arrate eskubaloitako zuzendaritzakoek, hau da, Naturhouse La Rioja taldea lporuan jasoko duen bezperaraino. Harpidetza guzti horiek %50eko deskontua dute eta beste lagun bat harpidedun egiten duen bakoitzarentzat gonbidapen bi jasoko ditu lporuan jokatu beharreko edozein partidurako. Prezioak honakoak dira: infantilak (15 euro), jubenilak eta jubilatuek (30), helduek (70) eta familia harpidetza (100).



Kiroljokoa ospakizunetan

EIBARKO KIROLJOKOAK APUSTU ETXEA BARRAKO ZERBITZU BERRIA ESTREINATUKO DU gaur bertan. Isasi 9an dagoen Kiroljokoa bezeroak eta oraindik apustu etxea ezagutzen ez dutenei gonbidatzen die gaur 19.00etan hasiko den ospakizunera. Eta, gaurtik aurrera, apostuak egitera eta kirol emanaldi garrantzitsuenak ikustera bertaraten diren guztiak ostalaritza zerbitzu berria erabili izango dute.

La Movida eibarresa
 Kirola atseginez egunero Borja Rodriguezekin, arratsaldeko 3etatik 4etara

90.7 Fm

Nafarroatik, Lizarratik, datorkigu Ines Bengoa ipuin kontalaria. Bidaia laburra egingo du handik hona, baina zorroa ipuinez beterik ekarriko du. Zapatuan arituko da Umeen Liburutegian 18.00etatik aurrera eta edonor hurbildu ahal izango da bertara momentu magikoak bizitzera. Ipuinen magia.



INES BENGOA, ipuin kontalaria:

"Antzeztuak izaten dira nire kontakizunak"

- Zelako saioa eskainiko duzu liburutegian?

Saiatzen naiz hain ezagunak ez diren ipuinak kontatzen, klasikoak ez direnak erabiltzen; hau da, Txanogorritxu eta halakoak ez ditut kontatuko. Bestetik, beltzez jantzita joango naiz koloretako malla batzuekin, bizitasun pixka bat emateko. Antzerkia ikasi nuen hiru urtez Nafarroako Antzerki Eskolan; beraz, nahiko antzeztuak izaten dira eskaintzen ditudan kontakizunak. Ez naiz moztortzen; horrela, ahotsa eta gorputza erabiltzen ditut pertsonaia ezberdinak egiteko.

- Ipuin kontalariena ez da ipuin kontaketa soila, ezta? Badu antzerki kutsurik.

Horrela da. Ez da hitza bakarrik, gauza gehiago dago kontaketa batean. Bestetik, berba egin gabe ere gauza asko esan daitezke, mimikarekin adibidez, gorputzarekin.

- Zer iraupen izango du saioak? Zenbat ipuin kontatuko dituzu?

50 bat minutu iraungo du eta lau bat ipuin kontatuko ditut. Umeek parte hartu dezaten saiatzen naiz eta, horretarako, eurek errepikatze hainbat lelo esaten ditut, barregarria izaten saiatuz...

- Zer egiten duzu umeen arreta jaso eta ipuinean murgildu daitezen?

Erabiltzen dudana amarrua gorputza lantzea da. Aho-tsarekin bakarrik ez daukat gaitasunik euren arreta lortzeko, zaila da; beraz, azkar mugitzea eta barregarria izatea lortu behar duzu.

- Ipuinak kontatzen dituzu... eta idatzi?

Ez daukat hainbestearinoko sormenik. Hori bai, ipuinak moldatu egiten ditut umeen aurrean arituko naizela kontuan izanik, gustukoena hartuz, baina ez ditut sortzen.

- Noiztik zabilta ipuin kontalari bezala?

Orain duela zortzi urte hasi nintzen, 2002an.

- Zer dela-eta?

Antzerki eskolan nabilen eta, Lizarrakoa izanik, inguruko herri bateko liburutegian esan zidaten ea umei ipuin bat kontatzera animatzen nintzen, probatzeagatik. Irakurtzea beti izan dut gustuko; probatu nuen, gustatu egin zitzaidan eta, orduetik hona, ehundik gora saio eskaini ditut. Berez kazetaritza ikasketak egin ditut, Leioan, baina ez naiz kazetari moduan asko aritu. Antzerki munduan sartu eta bide horretatik orain arte.



Eguen Zuri argazki lehiaketarako deialdia

ARRATE KULTUR ELKARTEAK XIII. EGUEN ZURI ARGAZKI LEHIAKETA ANTOLATU DU. Aurtengoa 13. edizioa izango da eta, betiko moduan, aratosteen inguruko argazkiekin parte hartzeko aukera izango da. Lehiaketa irekia da eta edozein zaletuk har dezake parte. Bakoitzak lau argazki aurkez ditzake, gehien jota, nahi duen tamainan eta koloretan zein zuri-beltzean bidalitakoak onartuko dituzte. Hori bai, 20 x 30 zentimetroko aurkeztu behar dira denak. Lanak aurkezteko azken eguna otsailaren 23a izango da eta Arrate Kultur Elkartearen bulegoan zein tabernan jasoko dituzte. Argazki onenarentzat

160 euroko saria egongo da eta bigarrenak, berriz, 100 euro jasoko ditu. Informazio gehiagorako 943 202299 telefono zenbakira deitu daiteke edo arrate.kultu@eibar.org helbidera idatzi.

Bestalde, aratosteetan dotoreen jarritako taberna aukeratzeko lehiaketa antolatu du Udalak. Lehiaketan parte hartzeko otsailaren 11rako izena eman beharko dute interesatuek, Pegora hiritarren zerbitzurako bulegora joanda. Epaimahaiko kideak hurrengo egunean, Eguen Zurian (otsailak 12) joango dira izena eman duten tabernak nola apaindu dituzten ikustera, ondoren aurtengo irabazlea zein izan den aukeratzeko.




Sostoaren Santa Ageda kalejira

OHITURARI JARRAITUTA, SOSTOA ABESBATZAK KALEJIRA EGINGO DU SANTA AGEDA EGUNAREN BEZPERAN, otsailaren 4an. 19.00etan ekingo diote ibilbideari, Torbio Etxebarria kaletik hasita. Ondoren Untzaga, Txirio Kale, Calbeton, Ibarcurutze eta Urkizutik jarraituko dute abesten. Betiko moduan, kalejiraren amaieran Auzokoak Urkizu aldeko elkarte gastronomikoen elkartekoek piskolabisa eskainiko diete. Aurten Bekuak elkartean izango da afari-merienda. Kalejiran abesbatzak batutako dirua, berriz, Haiti-ko hondamendian kaltetutakoei laguntzeko emango dute.

Jazz kontzertua otsailaren 5ean

OTSAILAREN 5-EAN, 20.30ETAN, EL-KANO BROWNING CREAM TALDEAREN EMANALDIA hartuko du Coliseo antzokiak. Mikel Azpiroz musikari donostiarrek Franck Mantegari eta Matt Harding-ekin batera osatzen duten hirukoteak jazz-groove estiloko musika jorratzen dute eta sarrerak 7 eurotan ipini dituzte salgai. Aldez aurretik erosteko aukera dago, ohiko bideei jarraituta eta kontzertu egunean bertan ere Coliseoko leihatilan erosteko aukera egongo da.



Javier Areitioaurtena Topalekuan

GAUR ARRATSALDEAN, 19.00-ETAN ZABALDUKU DU MARGO ERAKUSKETA Javier Areitioaurtena Izagirrek Topalekuan, Arrate Kultur Elkartearen erakusketa aretoan. Otsailaren 7ra arte zabalik egongo den erakusketa ohiko ordutegian bisitatzeko aukera izango da: asteburuan, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara eta astegunetan 19.00etatik 21.00etara.

Belaunaldien arteko elkargunea

GAUR ARRATSALDEAN, 17.00-ETATIK AURRERA ETA 19.00-AK ARTE, TXALTXA ZELAICO PARKEA belaunaldien arteko elkargune bihurtuko da. Kale hezitzaileek eta Biztu jubilatuen elkarten koordinakundekoek elkarrekin antolatutako ekitaldian, besteak beste, dantzak (pa-

sodobleak eta break-dance), mahai-jokoak, igel-toka lehiaketa eta txokolate jana egingo dira. Belaunaldi ezberdinen artean espazio bera konpartitzea posible dela helburu duen ekitaldia irekia da eta nahi duen guztiak izango du bertan parte hartzeko aukera.

Eibartarrak bikain “Oh Happy Day” saioan

ELENA MARTINEK ZUZENDUTAKO EIBARKO KORO GAZTEAK EZIN HOBETO EKIN ZION “Oh Happy Day” lehiaketari, The Jackson’s Five taldearen “ABC” abestiarekin puntuaziorik altuena eskuratu baitzuen. Buruzburukoa apirilean jokatuko da, baina oraingoz lehiaketa irabazteko faboritoen artean kokatu dira abeslari gazteak.



laburrak

HIZKUNTZA ESKOLA
Eibarko Hizkuntza Eskola Ofizialerako matrikula internet bidez egiteko aukera izango da otsailaren 10ean hasi eta martxoaren 2ra arte. Libreтик matrikulatzen den ikasleak azterketa egin eta ziurtagiri ofiziala jasotzeko aukera izango du. Alemana, euskara, frantsesa eta ingelesa ikasteko aukera izango da eta azterketak ekainean eta irailan izango dira. Informazio gehiagorako www.eoieibarheo.net helbidean eskuratu daiteke.

PAILAZOENDAKO SARRERAK
Gaur itxiko da ...eta kitto! Euskara Elkarteko bazkideentzat soilik martxan egon den pailazoendako sarreraren salmenta berezia. Beraz, otsailaren 26an (17.00etan eta 19.00etan) eta 27an (16.00etan eta 18.30etan) Piritx eta Porrotx pailazoez Hezkuntza Esparruan eskainiko dituzten emanaldietarako sarrerak bihar goizean bertan gainontzeko guztientzat saltzen hasiko dira, 6'50 eurotan El Tío Palancas (Juan Gisasola), Geltoki (Toribio Etxebarria) eta e&m argazki dendan (Urkizun).

SAN BLAS OPILAK
Eguztenean San Blas ospatuko dugu gurean eta, ohiturari jarraituta, askok opilak bedekatzera eramango dituzte horretarako antolatzen dituzten meza berezietara. San Andres elizan meza bi ospatuko dituzte horretarako, 09.00etan lehenengoa eta 11.00etan bigarrena.

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:
☎ 943 201095 fax: 943 202564

EMAKUME ETA GIZON MODA

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33

ZULOAGATARREN, 7



Gozogintza ikastaroa


OTSAILERAKO GOZOGINTZA IKASTAROA ANTOLATU DU BERRIRO ERE ...eta kitto! Euskara Elkarateak. Hiru egunetan (otsailaren 18an eta 25ean eta martxoaren 4an) izango dira klaseak, Portaleko sukaldean, 18.30etatik 20.30-etara. Izena emateko epea astelehenean, otsailaren 1ean

zabalduko da eta otsailaren 12ra arte iraungo du, ...eta kitto! Euskara Elkaratean (Urkizu, 11 solairuartea, 943-200918 telefono zenbakia). Antolatzaileek azaldutakoaren arabera, izena emateko orduan Berbetan programako partaideek eta euskara elkarateko bazkideek deskontua izango dute.



Argazki erakusketa berriak tabernetan

HILERO MODUAN, OTSAILLEAN ERE HAINBAT ARGAZKILARIREN LANAK IKUSTEKO AUKERA eskainiko dute Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeak antolatutako erakusketek. Otsailaren 1ean hasi eta 28ra arte José Gallardoren "Bajo para ver tus sueños" izenburuko erakusketa egongo da ikusgai El Ambigú tabernan. Depor tabernan, berriz, "Foto Montcada '09" izenburukoa egongo da martxan eta Portalea tabernan Ibai Armentieren argazkiak ikusteko aukera izango da. Horiek hasi bitartean, urtarrilaren 31ra arte Gorka Vicenteren lanak Portalea tabernan daude ikusgai, Aitor Aulestiarterenak Depor



Jose Gallardoren argazki bat.

tabernan eta Frederic Garridorenak El Ambigún. Argazkilaritza Taldekoen erakusketa kolektiboa, berriz, Portaleko erakusketa aretoan ikusteko moduan izango da (18.30etatik 20.30etara) domekara arte.



Piano jaialdia hartuko du Coliseoak

JUAN BAUTISTA GISASOLA MUSIKA ESKOLAKO PIANOJOLEAK ETA ISABEL LASPIURREN IKASLEEK piano jaialdia eskainiko dute domekan Coliseoan, 11.00etatik aurrera (sarrera euro bitan salgai). Musika Eskolak lehenengoz antolatutako jaialdian 25 bat musikagilek hartuko dute parte. Gazteentzat esperientzia polita izateaz gain, beroketa gisa ere baliagarria egingo zaie, otsailaren 6an eta 7an Andoainen ospatuko den Piano Jaialdiaren bosgarren edizioan parte hartuko dutelako.

Txurruka eta Colina Itzion

GABONETAKO OPORREI EKIN AURRETIK, Itzioko ikasleek ekitaldi bereziaz gozatzeko aukera paregabea izan zuten: Amets Txurruka txirindularia eta Sustrai Colina bertsolaria ikastetxean bisitan izan ziren eta, irakasleek azaldu digutenez, "elkarrizketaz gozatu eta bertso saio zoragarria entzuteko parada izan zuten".

Lagun Taldearen bigarren emanaldia

BIHAR ARRATSALDEAN, 17.30-ETAN TAULARATUKO DUTE BIGARRENEZ "Y YO CON ESTOS PELOS" ikuskizuna Lagun Taldea aisialdi taldekoek, Hezkuntza Esparruko aretoan. Aurreko asteburuan estreinekoz ikusi zen ikuskizunak oso harrera ona izan zuen eta biharko emanaldirako sarrera guztiak honezgero saldu daudela adierazi digute arduradunek.



Aurreko zapatuko antzezlanaren irudia. / MAIALEN BELAUSTEGI




EUSKARAREN

EUSKARAZKO AGIRIAK SINTZEARI UKO EGINEZ. 2008ko Sanjuanetan gure artean izandako Begoña Ganuza Lizarrako alkateak uko egin dio euskaraz eta gaztelaniaz dauden agiriak sintzeari. "Euskara nire eta nire haitesleen ideologiaren kontra doa" aitortu zuen Ganuzak urtarrilaren 18an egindako osoko bilkuran. Hurrengo egunean, baina, idatzizko eskaerarik egin ezan idazki elebidunak egiten jarraituko zuela jakinarazi zion alkateari Alejandro Vicente udal idazkariak. Horri lotuta, hilaren 21ean administrazioan euskararen erabilera arautzen duen foru dekretuaren inguruko txosten juridikoa egin zezan eskaera erregistratu zuen UPN alkatearen alderdiak. Astelehenean kaleratutako txostenean, Lizarrako Udaleko agiritan euskara erabilitea "zilegi" dela defendatu du behin eta berriz Vicentek, "29/2003 Foru dekretuak eremu mistoko udaletan agiri elebidunak onartzen dituelako". Gainera, "idazkien testu nagusia gaztelania hutsean dago".

TXOKOA

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunren bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguazten aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, GAIZKA, gaur bertan sei urte egitten dozuz-eta. Famelixaren partez.




Zorionak, Eneritz eta Alvarori, JULEN jaixo dalako. Famelixa guztiaren partez.




Zorionak, ALBA, bixar urtebete egingo dozu-eta. Patxo potolo bat famelixaren partez.



Zorionak, ANE, hillaen 21ian bederlatzi urte bete zenduazelako. Aitatxo, amatxo eta famelixaren partez.



Zorionak, ARRATE, domekan hiru urte beteko dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.




Zorionak, JOSU Urkia Usunariz, atzo urtebete egin zendualako. Muxu haundi bat aitatxo, amatxo eta famelixa guztiaren partez.




Zorionak, NAIA NILI, zure laugarren urtebetetzian. Muxu haundi bat aitta eta amaren partez.



Zorionak, ERLANTZ, martitzenian urte bi bete zenduazelako. Famelixako guztiaren partez.



Ongi etorri, UGAITZ Amesti. Zure arreba ALAITZEN partez.



Zorionak, MIKEL (hillaen 14an) eta JULEN (25ian), zortzi urte egin dozuez-eta. Jarraitu mutil haundi eta alaiak izaten. Muxuak famelixaren partez.

JAIOTAKOAK

- Brian León Villafaña. 2010-I-17.
- Omar Aghbalou Benslaiman. 2010-I-19.
- Anas Ben-Driss. 2010-I-19.
- Irati Barea Ruiz. 2010-I-21.
- Iker Nieto Buendía. 2010-I-22.
- Nora Ortueta Vitores. 2010-I-23.
- Jokin Pereira De la Torre. 2010-I-23.

HILDAKOAK

- Rosa Imaz Chasco. 65 urte. 2010-I-18.
- Mercedes Juaristi Etxabarri. 86 urte. 2010-I-22.
- Ramon Gregorio Maiora San Martin. 60 urte. 2010-I-23.
- Elisabete Boneta Sarasua. 88 urte. 2010-I-23.
- Sabina Barrenetxea Larrinaga. 96 urte. 2010-I-26.
- Jose Manuel Docabo Otero. 39 urte. 2010-I-26.
- Maximo Argoitia Arrieta. 91 urte. 2010-I-26.

zinea Coliseoan

29an, 20.30etan; 30ean, 17.00, 19.45 eta 22.30etan
31n, 17.00 eta 20.00etan; 1ean, 20.30etan

"Rompedientes"

Zuzendaria: Mich. Lembeck
 Aktoreak: Dwayne Johnson, Julie Andrews, Billy Crystal, Ashley Judd...



Derek Thompson "Hortzetako Maitagarria" hockey jokalaria da, horrela deituta aurkariak hortz barik lagatzen dituelako. Gazte baten ametsekin amaitzen duenean, zigorra jasoko du: astebete osoa eman beharko du Maitagarriarena egiten...

"Nine"

Zuzendaria: Rob Marshall
 Aktoreak: Nicole Kidman, Kate Hudson, Penélope Cruz, Daniel Day-Lewis...



Guido Contini zine zuzendaria da; Venezian dago, depresioak jota. Bere bizitzako emakumeek (emazteak, amoranteak, amak eta bere filmeetako izar nagusiak) ez dute eragin onik bere lanean eta azkenengo filmearen produkzio lanean dihardu...

"Sherlock Holmes"

Zuzendaria: Guy Ritchie
 Aktoreak: Robert Downey Jr., Jude Law, Rachel McAdams, Mark Strong...



Sherlock Holmes-ek eta Watson laguntzaileak Lord Blackwood hiltzailea harrapatu dute. Urkan hiltzeko dagoenean, Blackwood-ek zera esango dio Holmes-i: "Hau ere aurreikusita nuen, Sherlock". Handik gutxira hilketak hasiko dira berriro...

"Control"

Zuzendaria: Anton Corbijn
 Aktoreak: Joe Anderson, Samantha Morton, Alexandra Mª Lara, Sam Riley...



Ian Curtis abeslariaren azken urteei errepasoa egiten da. Ingalaterrako post-punkaren ikonoa zen Curtis, 1980. Urtean bere buruz beste egin zuen arte. Emakumeekin izandako harremanak, kontzertuetako indarra eta epilepsia erakutsiko digu...

horoskopoa

ARIES

Badakizu gauza ilegalak egitean jokoan jartzen dena zer den. Gatazka etikoa izango duzu eta erabakia ez da samurra izango.

TAURUS

Abesti bat sartuko zaizu buruan eta ez duzu egunetan kenduko. Ohartu zara esaten duen horretan? Emaizkiozu buelta batzuk.

GEMINI

Zu bai zu erromantikoa. Olerkiak, bonboiak... nola gustatzen zaizkizun horrelakoak! Parisen jaio behar zinen zu. Hori da dagokizuna.

CANCER

Zureari tinko eusten ez badiozu, nor egingo du? Ez duzu zertan etsi gauzak horrela direla uste baduzu. Denborak arrazoa emango dizu.

LEO

Negozio garrantzitsu bat edukiko duzu eskuetan, baina buruhauste asko emango badizu ere, ez duzu etekin gehiegirik aterako.

VIRGO

Argazkietan ateratzea gogoko duzu eta modelo izateko proposamen ona jasoko duzu. Lagun baten eskaintza izango da, ezingo diozu ezetz esan.

LIBRA

Kuaderno edo grabagailu bat eraman beharko duzu soinean gauzak ez ahazteko. Zergatik ez diozu buruari aktibitate pixka bat ematen?

SCORPIUS

Lotura berezia duzu soilik bistaz ezagutu eta nolabaiteko bizipoza sortzen dizun lagun horrekin. Berarengana hurbiltzeko balioko dizu.

SAGITTARIUS

Hasieran zertxobait kostatuko bazaizu ere, zabilzan horretan jarraitu beharko zenuke. Ilusioz egiten baduzu, lortuko duzu nahi duzuna.

CAPRICORNIUS

Aste polita izango da zuretzat. Arazorik gabekoa eta berri onez josia. Zure zorionerako, gainera, aspaldian galdutako gauza bat aurkituko duzu.

AQUARIUS

Errealistagoa izan beharko zinateke eta ez eskatu gerta ezin daitekeena pasatzea. Hantxak lurrean izan behar dituzu momentu oro, batez ere orain.

PISCIS

Jauzi handia emango duzu bizitzan. Egun batetik bestera erabat aldatuko dira gauzak eta atzo txuria zena beltza izango da gaur.

Barixakua 29

ELKARGUNEA

17.00.- Belaunaldien arteko elkargunea: dantzak, jolasak, mahai-jokoak, txokolata-jana... Txaltxa Zelaian.

UNI ENCOUNTER

18.20.- Uni Encounter VI. jardunaldien aurkezpena. *"El carrete ha muerto, viva el píxel"* hitzaldia, Félix Morquecho argazkilariaren eskutik. Portalean.

KIROLJOKOA

19.00.- Barra zerbitzuaren inaugurazioa Kiroljokoan (Isasi, 9).

ELKARRETARATZEA

19.00.- Presoen aldeko elkarretaratzea: *"Beraien eskubideen jabe, gaixo larriak etxera"*. Untzagan.

MANIFESTAZIOA

19.20.- Tallarra gaztetxea botatzearen kontrako manifestazioa. Untzagatik hasita.

BATZARRA

20.00.- Deportiboaren urteko batzarra. Klub Deportiboaren egoitzan.

Zapatua 30

SAN JUAN BOSCO

13.30.- Zinema operatzaileen urteroko bazkaria. Bazkorian.

LAGUN TALDEA

17.30.- *"¡Y yo con estos pelos!"*, Lagun Taldearekin. Hezkuntza Esparruan.

ZAPATUKO IPUINA

18.00.- *"Karabi, karaba, ipuinen ordua iritsi da"*, Inés Bengoaren eskutik. Umeen liburutegian.

ELKARRETARATZEA

19.00.- Presoen aldeko elkarretaratzea: *"Beraien eskubideen jabe, kondena beteta dutenak kalera, biziarteko zigorrik ez"*. T. Etxebarria kalean.

KONTZERTUA

22.30.- Klavo Oxidado eta Plan B. Tallarra gaztetxean.

Domeka 31

PIANO JAIALDIA

11.00.- Andoaingo lehiaketan parte hartuko duten eibartarren eskutik. Sarrera: Euro bi. Coliseoan.

ELKARRETARATZEA

13.00.- Presoen aldeko elkarretaratzea: *"Beraien eskubideen jabe, euskal presoak Euskal Herrira"*. Untzagan.

UMEENDAKO ZINEA

17.00.- *"Hotel para perros"*. Sarrera: 2'80 euro. Amaña Kultur Aretxean.

Astelehena 1

IKASTEN

16.00.- Sendabelarren foroa. Portalean.

Martitzena 2

IKASTEN

10.00.- *"Grandes tesoros de la arqueología II"*, M^a Jose Noainen eskutik. EPAn (Isasi, 39).

UNI ENCOUNTER

16.00.- Android, Googleren sistema eragilea mugikorrentzako.
17.30.- *"Androide bat nire poltsikoan"*. Androideentzako aplikazioen mundua.
19.00.- Mahai-ingurua. EtxekoAndroid deialdia. Uni-Eibar Ermuan (Ongarai auzoan, Ermuan).

Eguaztena 3

SAN BLAS

09.00 eta 11.00.- Opilak bedeinkatzeko meza San Andres elizan.

IKASTEN

10.00.- Urteko batzarra. EPAn (Isasi, 39).

UNI ENCOUNTER

16.00.- Teknologia berriak irakaskuntzan: Euskara 2.0.
17.20.- Marrazki bizidunak, paperetik pantailara.
18.45.- *"Scratch: programación para niños y niñas de 5 a 99 años"*. Uni-Eibar Ermuan (Ongarai auzoan, Ermuan).

Eguena 4

IKASTEN

10.00.- *"Factores que condicionan el nacimiento de un movimiento artístico"*, Ricardo Aldamaren eskutik. EPAn (Isasi, 39).

BIDEO-FORUMA

17.00.- Bideo-foruma: *"Whale Rider"*. Jabetze Eskola: *"Tomar conciencia del derecho a tener derecho"*. Portalean.

EGOIBAR ZINEKLUBA

17.00 eta 21.00.- *"Control"* (Zuz: Antón Corbijin). Sarrera: Euro bi. Hezkuntza Esparruan.

SANTA AGEDA

19.00.- Sostoa abesbatzaren kalejira. Ibilbidea: T. Etxebarria, Untzaga, Txirio, Calbeton, Ibarkurutze eta Urkizu.


DENBORAPASAK

5			6	3		7		4
	7		4					3
		3	2			8	9	
9		7		2	3	4		
2	6	1				5	3	
	3					9	7	
			7	5		1		9
7	5			1			4	
	9				2			

SUDOKUA

4	7	8	3	9	5	0	1	2
2	3	1	6	9	7	5	4	8
9	5	8	4	1	2	7	3	6
5	1	7	2	4	6	3	8	9
6	9	3	1	5	8	2	7	4
8	4	2	7	3	9	1	6	5
7	2	9	8	6	3	4	5	1
1	5	9	6	7	4	8	3	2
3	8	4	5	2	1	6	9	7

AURREKOAREN EMAITZA



erakusketak

- Urtarrilaren 31ra arte
Eibarko Klub Deportiboko **ARGAZKI TALDEAREN** erakusketa. *Portalean.*
GORKA VICENTEren argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
AITOR AULESTIARTEren "Begiradak". *Depor tabernan.*
FREDERIC GARRIDOren "Nindas". *El Ambigú tabernan.*
Hainbat artistaren **ERAKUSKETA-TONBOLA.** *Untzaga Jubilatatu Etxean.*
- Otsailaren 7ra arte
JAVIER AREITIOAURTENAren margo erakusketa. *Topalekuan.*
- Otsailaren 16ra arte
ARATOSTEAK 2010 EIBARREN kartel lehiaketako lanen erakusketa. *Portalean.*



MUSIKA:
Piano Jaialdia. Urtarrilak 31, 12.00.
Elkano Browning Crean. Otsailak 5, 20.30.

ANTZERKIA:
"Mari eta orrazi galdua". Otsailak 20, 17.00.

ikastaroak

- **Gozogintza ikastaroa.**
Noiz: Otsailak 18 eta 25 eta martxoak 4, 18.30etatik 20.30etara. Non: Portalean (sukaldean).
Izen-ematea: Otsailaren 1etik 12ra, ...eta kitto!-n (Berbetan programakoek eta bazkideek deskontua izango dute).

lehiaketak

- **3D Counter Strike.**
Lanak aurkezteko epea: Otsailaren 5era arte. Informazioa eta materiala: www.iesunibhi.com
- **Industriagintzari buruzko IV. Argazki Lehiaketa.**
Lanak aurkezteko epea: Otsailaren 26a. Informazioa: Armeria Eskolan, aaa@armeriaeskola.com
- **XIII. Eguen Zuri argazki lehiaketa.**
Lanak aurkezteko epea: Otsailaren 23ra arte. Arrate Kultur Elkarteon. Informazioa: 943 202299 telefono zenbakian edo arrate.kultu@eibar.org

telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.	943 46 46 22
Gurutze Gorria..	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutero: 07.30, 08.50, 10.30, 13.50, 14.50 eta 18.50. Laneguna: 07.00, 08.00, 15.30 eta 21.05. Jaieguna: 09.50, 13.50, 18.50 eta 20.50. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 12.50, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30, 13.50, 14.50 eta 18.50. **EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.40etatik 20.40etara orduo. Zapata eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduo. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 06.40etatik 21.40etara orduo. Zapata eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduo. **EIBAR-GASTEIZ.** Egutero: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapata: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaiegunak: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Egutero: 08.50, 12.50, 16.50 eta 20.50. Jaiegunak: 08.50, 10.50, 12.50, 16.50, 18.50 eta 20.50. **EIBAR-IRUÑA.** Laneguna: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.50 eta 18.00. **IRUÑA-EIBAR.** Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaiegunak: 10.45 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapata: 14.00. Domeka eta jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapata: 14.50. Domeka eta jaiegunak: 09.50, 10.50, 11.50, 13.50 eta 18.50. **EIBAR-ELGETA.** Laneguna: 13.50 eta 20.20. Domeka eta jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaiegunak: 12.50 eta 19.50. **ERMUA-MENDARO.** Astelehenetik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdio). Zapata-Domeka-Jaiegunak: 06.50-etik 21.50-era orduo. **MENDARO-ERMUA.** Laneguna: 06.55etatik 21.55etara orduerdio. Zapata-Domeka-Jaiegunak: 07.55-etik 21.55-era orduo.

tren ordutegiak

EIBAR-BILBO. Lanegunak: 06.13etatik 21.15etara orduo. + 10.35 eta 21.38. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 05.57etatik 20.57etara orduo. + 09.54 eta 20.54. **EIBAR-DURANGO.** Egutero: + 22.18. **EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 06.15etatik 20.15etara orduo. + 10.55 eta 21.38. **DONOSTIA-EIBAR-ERMUA.** Lanegunak: 05.47etatik 20.47etara orduo.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Errebal kalean duplexa salgai. 4 logela, egongela, sukalde handia, komun bi, despaxoa eta terraza. Berriztua eta argitsua. Deitu arratsalde. Tel. 605-772606.
- Elgoibarko erdialdean pisua salgai. 3 logela, terraza handia eta garajea. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 685-724553.
- Pisua salgai Ipuruan, J.A. Mogel kalean. 2 logela, egongela, sukaldea des-pentsarekin, komuna eta trasteroa. Dena kanpora begira eta eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 661-291898 edo 610-603631.
- Legarren pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bizitzera sartzeko moduan. Berriztua. 25.000.000. pta. Tel. 659-687736.

1.2. Errentan

- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 645-366850 edo 943-530517.
- Logela alokagai. Tel. 690-156040.
- Pisua alokatuko nuke Eibarren. Tel. 943-208178 edo 629-976131.
- Pisua hartuko nuke Eibarren alokairuan. Tel. 636-430546 edo 646-048823.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 2 edo 3 logelakoa. Tel. 608-975207. Laurin.
- Pisua hartuko nuke alokairuan (ganbara), lagun batendako modukoa. Tel. 678-150053 edo 609-248845.
- Logela alokagai lagun bakarrarentzako. Tel. 688-618959.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Logela bat edo bi. Tel. 688-618959.
- Urkizuko Orbeako dorreetan pisua alokagai. 3 logela, egongela, sukaldea eta komun bi. Tel. 943-702672 edo 600-657196.
- Eibarren edo inguruan pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 666-784526.
- Eibarren pisu txikia hartuko nuke alokairuan, San Andres ikastetxe inguruan. Tel. 628-789789.

2. Motorra

2.1. Salgai

- Renault Clio 1.2 gasolina salgai. 1999ko abendukoa. SS-BH. 87.000 km. 900 euro. Tel. 659-453667.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Urkizun bat-bi plazako garajea salgai. Tel. 629-590701.

3.2. Alokagai

- Garaje itxia Abontzan alokagai. Tel. 615-712216.
- Garaje itxia alokagai Estaziño inguruan. Labaderoarekin. Tel. 610-395630.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko 11.00etatik 17.00etara arte. Tel. 679-910991.
- Mutila eskaintzen da sukaldari-laguntzaile, igeltsero edo margolari moduan lan egiteko. Tel. 638-465098.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 693-232959 edo 943-254118.
- Gizona eskaintzen da gidari moduan, nagusiak zaindu etabarrerako. Tel. 693-232959 edo 943-254118.
- Gizona eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 616-809926.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 645-366850.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 619-445548.
- Mutila eskaintzen da kamarero moduan lan egiteko. Tel. 697-481487.
- Emakumea eskaintzen da dendari laguntzaile moduan lan egiteko. Tel. 697-939085.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 943-171583.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 680-516240.
- Gizona eskaintzen da sukaldari-laguntzaile moduan edo edozein lanerako. Tel. 690-156040.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketa lanerako. Tel. 639-020180 edo 686-274490.
- Neska arduratsua eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 689-436454.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Tel. 669-966611.
- Neska eskaintzen da goizez lan egiteko. Tel. 608-886701.
- Gizona eskaintzen da igeltsero edo banatzaile lanerako. Tel. 650-513412.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu, garbiketak egin edo tailerretan lan egiteko. Interna edo externa. Tel. 635-313375.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu, garbiketak egin edo tailerretan lan egiteko. Tel. 685-761979.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 672-203675.
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanerako: etxeak, eskilarak, pegorak. Tel. 653-010861.
- Mutila eskaintzen da sukalde-laguntzaile, igeltsero, biltegian lan egiteko edo banatzaile moduan. Tel. 943-530795 edo 638-344377.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 646-394857. Celia.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketa lanerako. Arratsaldeko 17.00etatik goizeko 10.00etara. Tel. 662-247584.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketa lanerako. Interna edo externa. Gerontologia eta psikologia. Tel. 635-313375.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Esperientzia. Tel. 655-384877.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 943-171583 edo 608-474923.
- Neska eskaintzen da zortzi orduko lan baterako. Tel. 685-761979.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 664-838002.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Geriatriko ikastaroa eta esperientzia. Tel. 646-235195.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketa lanerako. Esperientzia. Tel. 690-296857.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edo externa. Tel. 675-007271.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanerako. Interna edo externa. Tel. 672-224941.
- Neska eskaintzen da umeak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 660-279131.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketa lanerako. Tel. 638-513253.

- Neska eskaintzen da arratsaldean eta asteburuetan lan egiteko. Tel. 636-383471.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanerako. Tel. 663-786976.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 681-117532.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna. Tel. 646-180072.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak gaez zaintzeko, umeak zaintzeko eta garbiketa lanerako. Tel. 686-435056.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak gaez zaintzeko, umeak zaintzeko eta garbiketa lanerako. Tel. 656-493864.

4.2. Langile bila

- Kamarero/a behar da Deporren asteburuetarako. Deitu 11.00etatik 23.00etara. Tel. 943-207044.
- Kamareroak behar dira Arraten asteburuetarako. Autoarekin. Tel. 677-638184.
- Estetizista behar da Elgoibarko estetika zentro baterako. Tel. 943-531636.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Ingeleseko irakaslea behar da LH 5. mailako umeari etxean klase partikularak emateko. Tel. 669-293462.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Koltxoia salgai. 2x1'5. la erabili gabe. Tel. 628-573781.
- Ontzi garbigailua salgai. Bosch markakoa. 3 hilabeteen bakarrik erabilia eta urte eta erdiko bermearekin. 300 euro. Tel. 679-720405.
- Txintxilak salgai jende arduratsuenentzat. Hilabete eta erdikoa bata eta hilabete bikoia bestea. Tel. 943-203205.
- Alpes 250 neguko abantzea salgai. Behin erabilia. Tel. 943-019864.
- Maxicosi kotxea, kapazoa eta aulkia salgai. Bebe confort urdin iluna. "Silla bastón" eta trona. Tel. 617-256466.

6.2. Eman

- Urte biko txakurra oparitzen da, ezin delako atenditu. Pitt-bull eta rottweileraren nahasketa. Tel. 636-858552.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Hilaren 23an Untzaga inguruan Nintendo DS zuria galdu nuen. Aurkitu baduzu, deitu. Tel. 679-576589.

6.4. Bestelakoak

- Bigarren eskuko ordenagailu portatila erosiko nuke. Tel. 688-661415.

Inoiz ez da azkarregi heziketarik onena jasotzeko.

Ehun urte baino gehiagoraino Aldatze Eibarko heziketan erreferentzia izan da. Gure inguruko beharrei erantzuteko gauekotasun -pedagogia, hizkuntzak, teknologia berriak, EFQM...- izan dira eta aldi oraindik gure lanaren oinarriak.

ATEAK ZABALIK
otsailak 6
larunbata
 11.00etatik
 13.00etara



- HEZIKETA INTEGRALA ETA KALITATEZKOA KRISTEAI HUMANISMOAN DINAMIZATUTA
- ALDATZE IKASTETXEA MENDE OSO BAT HEZTEN
- ELEBIDUN IKASTETXEA
- 2 URTEETIK IBERA BITARTEREN IKASLE NESKA-MUTILAK
- AZKEN 15 URTEETAN SELEKTIBITATERO FROGA 1400EK GAINDITU DITUZTELARIK
- IKASLEEN BANA KANBO JARRAIPENA
- ESKOLAKO ETA LANEKO ORDUTEGIAK BATERAGARRI EGITERO ZERBITZU ESKAINTZA

aldatze



ALDATZE
 Colegio Santa María
 de la Providencia

Aldatze kalea, 5 - Eibar - Gipuzkoa -
 Tel: 943 70 11 50 - aldatze@guillem.com




zerbitzu teknikoak
SOFTWARE
INFORMATIKA
HARDWARE
 aholkularitza


zerbitzuak:

- AHOLKULARITZA informatikoa
- HARDWARE-aren salmenta
- SOFTWARE-aren garapena
- EMPRESEI zuzenduriko zerbitzua
- PARTIKULARREI zuzenduriko zerbitzua

Gaurtik aurrera Txaltxa Zelai, 4-6an



aritz@gerritek.net



asier@gerritek.net

Tel. 943 03 38 92

TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak



Estaziño kalea, 8
Tel. 943 70 23 78

BERRIA

T. Etxebarria, 7
Tel. 943 70 23 84



Irribarreak
gaztetu egiten gaitu

m **bista eder**
clínica dental - hartz klinika

Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak

Bista Eder Hartz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75